

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**SAN MARTIN 10**



**Egilea eta data: Benito Olasagasti; 1890**

**Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi hiru jasodura, lehena fatxada planoan (jatorrizko oin txapituladun mansardatua ordeztuta) eta beste biak atzeraemanak. Harlanduzko fatxada. Behe oineko bao bikoitza ez zegoen aurreikusita jatorrizko proiektuan. Proiektu komuna Getaria 12rekin eta 14rekin.

**Babes erregimena**

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (4., 5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazioarekin lotutakoak barne (bao bikoitzean gainjarritako elementuak ezabatzea, dintela eta harlanduzko ertzak).